



LATORRIZKO GEHITU SARIA, 2009

Gehitu, Euskal Herriko gay, lesbiana, transexual eta bisexualen Elkartea, Eusko Jaurlaritzak herri-onura aitortua, homofobiaren eta transfobiaren kontra maiatzak 17an ospatzen den eguna dela eta, bere homofobiarengatik nabarmendu den hurrengo pertsona edo entitateari 2009 LATORRIZKO GEHITU SARIA ematea erabaki du:

Jacobo Piñeirok Isaac Perez eta Julio Anderson erailteagatik izandako afera epaitu zuen Vigon egoitza duen Pontevedrako Probintzi Auzitegiko 5. Saileko herri-epaimahaia edo zinpekoa osatu zuten pertsona haien artean, bere absoluzioaren alde bozkatu zutenei.

Gehituk, absoluzio-epai hau Isaac eta Julioaren duintasun, ohore eta memoriaren kontrako eraso larria dela hausnartzen du, baita hiltzailearen beraren aitortpenaren, fiskaltzaren frogan eta zientzia-poliziaren adituen testigantzen kontrakoa ere.

Jacobo Piñeirok berak hurrengo aitortuta: 57 sastada eman izana, erailketa gertatu zeneko lekuan beste 5 ordu jardun izana, sute garrantzitsu bat eragin izana eta erailketarako arrazoia lapurreta bat zelako itxurak egin izana, “gaindiezineko beldurra eta babes legitimoarengatik” aitortu erailea absolbitzen duen sententzia bera kontraesanean daude.

Erailak izandakoen sexu orientazioak berak eta oraindik gure gizartean homosexualitatea inguratzen duten aurreiritzi eta estereotipoek epaiaren gain eztabaida ezineko garrantzia izan dutela iritzi diogu.

Epaimahaiko partaide ziren eta Jacobo Piñeiroren absoluzioaren kontra egin zuten bi pertsonen izandako jarrera nabarmendu eta aitortu nahi dugu, nahiz eta epaian epaimahaiko gainontzeko partaideek absoluzioaren aldeko bozkatzearen oinarria aurreiritziak eta homofobia soziala ziren, gure iritzian.

Zentzu honetan, afera honek homofobia sozialaren adibide penagarri bat dela gogoratu nahi dugu, munduan zehar milaka bizi suntsitzen dituen gaitz bat da, gure gizartea guztiontzako leku okerragoa egiten du, eta hortaz, erauzten saiatzeko betebeharra dugu.

Horregatik, sari hau ematean, homofobia sozialak gure egunerokotasunean presente jarraitzen duela ohartarazi nahi dugu, eta legeak dagozkien giza eskubideak onartzen dizkien arren, bere herrikideei eragiten dieten mina nabarmendu nahi dugu.

Galiziako Xustizia Auzitegi Nagusian jarritako helegitea epai honen baliogabetzerako eta, izandako erailketa gaitzesgarri bikoitzarengatik Jacobo Piñeiro zigortzeko baliagarri izango dela espero dugu, behintzat horrela erailak izandako bi pertsonen memoriaren ordainetarako izan dadin.

Erailketa bikoitzaren absoluzioaren ondoren, bere oinatzak estaltzeko eragindako sutea dela eta, zigortu izanak, bereziki, ironikoa iruditzen zaigu, hau bidezko epaia izanik, biktimentzako eta beraien senitarteentzako iraingarri bilakatzen dela iruditzen baitzaigu.



Biktimen senitartekoei gure sostengu eta estimu handienak helarazteko, sari honen emateak erabilgarri izan dadin nahi dugu, bereziki Isaacen ama Martari, seme baten erailketa eta bere aitortu hiltzailearen absoluzioak suposatzen duen krudelkeriarekin, Isaac eta Julioren memoria eta duintasunaren aitorpenerako, lasaitasunez, argitasunez eta irmo borrokatzen jakin izanagatik.

Donostian, 2009ko maiatzaren 14an